

Francesca Albanese, Giza Eskubideen René Cassin 2025eko Saria

René Cassin Sariaren epaimahaiak 2025eko saria Francesca Albaneseri, **1967tik Okupatuetako Palestinako Lurraldeen Giza Eskubideen Egoerari buruzko Nazio Batuen Errelatore Bereziari** ematea erabaki du. Hautagaitza hori *SEADen Lagunen Elkartea*, *BDZ Euskal Herria* eta *Paz con Dignidad-Omal* erakundeek batera aurkeztu zuten, eta 118 erakundek eta 1200 pertsonak baino gehiagok lagundu zuten.

Albaneseren hautagaitzak, nolabait aitortu nahi zituen Israelgo estatu sionistak,

Mendebalde Globaleko enpresa eta instituzioen laguntzarekin, Palestinako herriaren aurka egiten duen genozidioaren kasuan, bereziki, eta baita munduko herrialde askotan ere, okupazio kolonialaren eta espoliazioaren inguruan ematen den isiltasunaren, gelditasunaren eta konplizitatearen aurka altxatu diren ahots guztiak

Epaimahaiak Albaneseren lanaren "*zorroztasuna, ausardia eta giza eskubideen nazioarteko sisteman oinarritzen diren balioekiko fideltasuna*" azpimarratu ditu. Izan ere, Albanese nekaezina da, nahiz eta Beasaingo **CAF** bezala, genozidioaz aberasten diren enpresen bere salaketak mehatxu eta arazo larriak ekarri dizkion.

Gure ustez, sari hau, totalitarismoaren haize berrien aurka eta zenbait erakundeen konplizitateen aurrean, kontzientzia solidarioa erakusten jarraitzen duen gehiengo sozial baten garaipena da.

Gizarte horri Francesca Albaneserekin batera ospatzeko eta bere mezua entzuteko aukera eskaini nahi genioke. Mezu hori guztiz beharrezkoa eta indarrean dago: Formalki su-etena dago, baina errealitateak erakusten du urraketak ez direla eten: bonbardaketak, indarkeria, blokeoak, laguntza falta, etengabeko suntsiketa. Autodeterminazio eskubidea urratzen den bitartean proiektu kolonialak aurrera jarraitzen du. Horregatik, bere presentzia ziurtatzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egiteko konpromisoa hartzen dugu, eta, topaketa honekin, bere ahotsaren, bere lanaren eta ordezkatzen duen guztiaren balioa aldarrikatu ahal izateko.

Euskal Herria, 2025eko abenduaren 2an

Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava

PAZ CON DIGNIDAD

KANPAINA BDZ EUSKAL HERRIA